

Euskal Herria gaiaren garapena XX. eta XXI. mendeetako testuliburuetan

(Development of the Basque Country issue in text books)

Ezkurdia Arteaga, Gurutze
UPV/EHU. Bilboko Irakasle Eskola. Hezkuntzaren Teoria eta
Historia Saila. Ramón y Cajal, 72. 48014 Bilbo
gurutze.ezkurdia@ehu.es

BIBLID [1137-4446 (2008), 16; 109-142]

Jaso: 07.07.02
Onartu: 07.12.03

Euskal Herria gaia XX. eta XXI. mendeko testuliburuetan nola landu den aztertzen dugu lan honetan. Euskal Herria lurraldea da, baita gizatalde bat, herri bat. Errealitate soziokultualetik abiatzen gara curriculumeko edukia aztertzerako. Horretarako testuliburuetakako ikonografia eta testua aztertu ditugu, arreta mezuaren testuinguruan jarritz.

Giltza-Hitzak: Identitatea. Testuliburua. Curriculum. Lurraldea. Historia. Soziokulturala.

En esta obra analizamos cómo se ha enfocado el tema del País Vasco en los libros de texto de los siglos XX y XXI. El País Vasco es una tierra, una comunidad, un pueblo. Analizamos el contenido del currículum desde la realidad sociocultural. Para ello hemos analizado la iconografía y los textos de los libros de texto, centrándonos en el entorno del mensaje.

Palabras Clave: Identidad. Libro de texto. Currículum. Tierra. Historia. Sociocultural.

Cet ouvrage analyse la manière dont est abordé le thème du Pays Basque dans les livres scolaires du XXe et XXIe siècle. Le Pays Basque est un territoire, une communauté, un peuple. Nous avons analysé leur contenu à partir de la réalité socioculturelle. En nous aidant, pour ce faire, de l'icône et du contenu des livres scolaires et en nous centrant sur le cadre autour du message.

Mots Clé : Identité. Livre scolaire. Programme d'Enseignement. Territoire. Histoire. Socioculturelle.

XX. mendean hedatzen da lehenengoz hezkuntzaren eta alfabetatzearen eskubide unibertsala mundu guztian. Isil-isilean gertatutako iraultza honen ondoren, XX. mendearen azkenean antolatu da komunikazio sareen hedapenarekin mundu mailako Informazioaren Gizartea.

Alfabetatzearen aitzindariak alde batera utzita, Leizarraga kasuko¹, XIX. mendearen azkenetan eta XX.aren hasieran hasi ziren euskaldunak haurren eskolartzearekin arduratzen, baita ikasten zutenarekin ere. Hala nola, Eusko Ikaskuntzaren lehen kongresuan aztertu ziren gaietan eta egin ziren proposamenduetan, erdaretan ezezik, euskal hizkuntzan ere trebatu beharra zegoela aldarrikatu zuten, baita bizi ziren hurbileko lurraldearen ezaugarrien eta arbasoen historiaren ezagupenenean ere. Mendea joan da eta berria etorri; bitartean gaiotan hainbat sakondu badugu ere, oraindino Euskal Herriko curriculumaren garapena eta ezarpena eskatzen gabilta. Curriculum kontzeptua mende azkenetakoa izan arren, Euskal Herriaren gaineko hausnarketa ez da hain berria izan. Aurkezten dugun lan honetan, mendean zehar Euskal Herria gai bezala irakatsi denean, lurraldearen eta historiaren gaineko arloak aztertu ditugu bereziki.

1. EUSKAL HERRIA, LURRALDEA ETA HERRIA

Euskal Herria euskaraz erabiltzen dugun kontzeptua da, esanahi bikoitza duena. Batetik, euskararen lurraldeaz mintzatzen garenean, Euskal Herria aipatzen dugu, hau da, euskararen lurraldea, euskarak berezkoa duena. Bestetik, euskaraz mintzatzen den gizataldea izendatzeko erabiltzen dugun hitz elkarte da. “Euskal” izenlaguna Euskara izenak hitz-elkarteetan hartzen duen forma da. Hitz-elkarte baten lehen osagarri gisa, euskarari, euskaldunei edo Euskal Herriari dagokionaren adierazlea da: euskal literatura, euskal dantzak.

Euskal Herriak, euskararen herria izanda, komunitate kulturala eta linguistikoa osatzen du, Euskarari atxikita dagoena. Ingurune kultural eta linguistikorekin loturik lotzen da, beti ere *euskaraz* ari garenean. *Euskaldunak* euskaraz mintzatzen direnak dira. *Euskal Herria* euskaldunak euren herriaz eta lurraldeaz mintzatzen direnean erabiltzen dute beti euskaraz ari direnean. *Euskal Herria* Leizarragak zentzu geografiko zein etnikoan² jasotzen du:

1. “Letra idatzien esparruan, bada, ugaltze eskerga izan zuten mendebaldeko hizkuntzak, euskara bezala ordura arte usatu gabeak bame. Adierazi bezala, Liburu Sakratuekin batera bestelako liburuak ere argitaratu ziren, erlijioso-didaktikoak beti ere”, Salaberri Muñoa, P. (2007): *Leizarraga zaharra, Leizarraga gaurkoa. Hautatu orriak*. MDLXXI, prestatzailea Patxi Salaberri Muñoa, Erroteta, Bilbo. 13 or.

2. Leizarraga, I. (1571): “Guicizco Andre Noble Ioanna Albrete Naffarroaco Reguina Bearnoco Andre guehién Ec, denari, bere cerbitzari guicizco chipiac eta guicizco obedientac, Ioannes Leizarraga Berascoizcoac, Iesus Christen gratiá eta baquea desiratzen” in *Baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und ABC) im genauen Abdruck herausgegeben von Th. Linschmann und H. Schuchardt. Mit Unterstützung der Kais. Akademie der Wissenschaften zu Wien. Strassburg, Verlag von K. J. Trübner, 1900.*

Alabaina segur içanez ecen Heuscaldunac berce natione gucién artean ezgarela hain bassa, nõ gure lengoagez ecin eçagut ete lauda deçagun gure lainco launa: ... Baina are guehienic bihotz eman ukan cerautana cen nic nuen sperançá, ecë moien hunez laincoarë hitz purac ukanë luela sartze eta auäçamëdu Heuscalherrian: eta hunetacotzat çu Andreá, hunez cerbitzaturen cinadela trompettea baten ançera, ceinez laincoac deitzë baitzaitu hala çure Nafarroaco resumã-ere Satani guerla eguitera, nola eguin eta eguitë-ere baitraucaçu çure dominationeco berce leku gucieta. ... Gainerakoaz den becembatean, batbederac daqui heuscal herria quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerán cer differentiá eta diversitatea den.

Bazterrak nahastu egiten zaizkigu erdaretara jo beharra dugunean: vasco³, *basque*, *wasco*, *basco* izen-lagunak erabiltzen dira. Hizkuntza erromantzeetan erabiltzen den *wasco* edo *vasco* izenlaguna *Vasconia* da, Euskal Herriak izan duen izaera politikoa definitzera datorren kontzeptuaren jatorrian.

Latinez idazten duen Oihenart-ek⁴ definitzen du ondoen kontzeptu hau: berak idatzitako historiaren subjektuak etnikoki euskaldunak dira, hots, *Vasconia*-koak. Nafarroa *Vasconia*⁵ lurralde kontzeptuan integratu zuen, horrek eransten baitzion euskaldun guztien batasuna, elementu objektiboetan oinarrituz, hizkuntza eta kultura amankomunean, hain zuzen. *Vasconia Euskal Herria* kontzeptu euskaldunaren itzulpen zehatza eta egokia da erromantze hizkuntzetan; objektiboki egokien definitzen duena gure lurraldea⁶. Erdi Aroko errealitate politikoa hura, *Vasconia*, kulturalki oso anitza zen.

Iruñako Erresumaren antolaketarekin etorriko da *Vasconia* deituraren apurketa, XI. mendearen inguruan. VII. mendean, *Spanowasconia* bezala izendatuko du Ravenako anonimoak⁷ *Iruñako Erresuma*. Penintsula aldeko *Vasconia Iruñeko Erresuma* bezala izendatzen hasten diren bitartean, *Vasconia* izena ere erabiltzen da (>*Vasconia*>*Gascuña*) Erdi Aroan *Akitania* aldeko lurraldeak aipatzeko. Hizkuntza erromantzeen sorreraren ondorioz, *vascon* eta *Vasconia* grecolatindarren eratorriak sortzen dira: Iparraldean *Wasconiatik Guasconia* > *Gascuña* >

3. Vasco: Erromantzeetako v izkia askotan b izkiaz ordezkatu da euskaratzerakoan, beste batzuetan f-z. Dena den v-a dirudenez ez da euskaran inoiz erabili. Eta v-aren erabilera urritza ematen den lurraldea historiaurre euskalduna izan duten lurraldeek osatzen dute: Gaskuñak, Waskoniak, Kataluniar-Aragoar Pirineoak, Langedokak eta Gaztela Zaharrak. Aldiz, euskal u-a bokal artekoa edo a-bokalaren aitzinean, ua osatuz, ez da u garbia, kontsonante ikutua hartzen du, W ingelesaren antzera. Hauxe da gero v-ra pasatu den hotsa: Nauarra=Navarra, Uasco=vasco, etabar. Vascones bezala izendatzen gaitu lehenik historian Tito Livio, Kristo aurreko 77 urtean. Dena den b-varen aldaketa edo oszilazioa erromatarren garaietatik datorrena historian asko luzatzen da. Dena den azken batean, ondorioztatu leike v-z idatzera jotzen dutela latindarrak, w-z germaniarrak, eta b-z iberoarrak, arabearrak eta basko erromanizatuak (edo euskaldun erromanizatuak), *Auñamendi*, 529-533 orr.

4. Oihenart-ek *Notitia utrisque Vasconiae* lan bixian garatzen duen kontzeptuaz ari gara.

5. *Auñamendi*, 192 or.

6. Agirreazkuenaga, J. (1993, 50): "A. Oihenart eta bere garaia. Gizarte-arazoetan bitartekari eta euskal politikagintzan aintzindari intelektuala", *Jakin*, 74.

7. *Vasconia*: *Auñamendi*, 530. or. Cfr. Caro Baroja, 1943, 131 or.

gascon; Hegoaldean, berriz, euskararen eraginez *basco*, *vasco* zabalduko da nafarrak izendatzeko. Bestalde, *bascongado* izen-lagun berria sortuko da hegoaldeko euskaldunak desberdintzeko. *Vasco* izendapena oso berandu zabalduko da, beraz, iparraldetik hegoalderantz eta, seguru asko, frantsesez edo okzitanieraz erabiltzen den *bascou*-tik eratorrita: Begi bistakoa da *vasco*, *basque*, *baskischen* izendapena Pirineo beste aldekoa dela, gaztelaniaz *vascongado* aipamena askoz erabiliagoa den bitartean⁸.

XIX. mendean vascos eta navarros izendapenen arteko bereizketa indartu egiten da, errealitate politiko ezberdinak desberdindu nahian, *vascos* *Vascongade*-etako biztanleak diren bitartean, *navarros* *Nafarroa*-koak:

Pero fue precisamente la propia peculiaridad de Navarra, reino independiente hasta 1841, lo que le impedía denominarse provincia como ocurría con las otras tres, y fue ganando terreno la expresión Provincias Vascongadas y Reyno de Navarra, para referirse al sur de Euskal Herria. En la última etapa foral se extendió la expresión provincias vasconavarros para referirse a la misma realidad⁹.

Durante el periodo franquista el adjetivo vasco refuerza en Navarra su nueva carta de naturaleza: “vasco” ocupa el espacio semántico que dejara el viejo término v/bascongado como sinónimo de vasco parlante. En aquellas zonas en las que el euskera va desapareciendo, los vasco parlantes son denominados vascos, como si de una especie en extinción se tratase. Asimismo, el adjetivo asume connotaciones políticas nacionalitarias. La aprobación en 1979 del Estatuto de Gernika sin Navarra marca un nuevo jalón. El nuevo ente triprovincial, al que Navarra puede adherirse, pasa a denominarse Euskadi o País Vasco. La no adhesión del exreino y la creación en 1982 de la Comunidad Foral de Navarra consagra una nueva barrera jurídica entre vascos y navarros¹⁰.

Gaur egun izendapenak gero eta esanahi murriztagoa dauka:

Hasta el siglo XIX, *vascongado* siguió siendo sinónimo de vasco parlante. En la actualidad, la expresión ha ido constriñendo su sentido, sin que sean ajenos a ello los intereses políticos: sin la amplitud de antaño, hoy son *vascongadas* las provincias de la denominada Comunidad Autónoma Vasca y *vascongados* los naturales de las mismas, independientemente de que hablen o no la lengua vasca¹¹.

Hortara, Estornes Lasak¹² dioena ere kontuan hartzen dugu:

Pero hay que decir con firmeza que la distinción actual de *vascongados* para alaveses, guipuzcoanos y vizcaínos ha sido creada por la administración española y en época recientísima...

8. Auñamendi, 146 or.

9. *Vascongadas*, Provincias: Egaña, I. (1996, 720): Diccionario histórico-político de Euskal Herria, 2 t., H-Z, Txalaparta.

10. *Vasco*, *Auñamendi*.

11. *Vascongadas*, Provincias: Egaña, I. (1996, 720): op. cit.

12. Estornes Lasa, *Euskalerría* 192 or. eta jarraikoak *Auñamendi*.

Aipatu autoreak ongi adierazten duenez, gaur egun vasco hitzaren erabilera autonomikoak markatzen du horren esanahaia, baina kasu, erabilerarekin, errakuntza sor daiteke-eta: batzuetan vasco *Vasconia*-tik eratorritako izen-lagun bezala ulertu behar da, eta besteetan, *Provintzia Vascongado*-etatik eratorria. Navarro, ordea, Nafarroak izan zuen Erresumako biztanlea zen, baina baita egun Nafarroako Foru Erkidegoko biztanlea ere. Nafar batzuk ez dute onartzen euren nortasun vascoa, hau da, kulturala eta linguistikoa, eta errebindikatzeko dutena nortasun politiko-historikoa da.

Gaur egun oso modu nahasian erabiltzen dira aipatu izendapenok. Curriculumen arlorak hurbiltzea baino ez dugu: Euskal Curriculuma, Euskal Herriko Curriculuma, Euskal Herrirako Curriculuma. Ez da zehatz azaltzen euskaraz soilik egiten dena den, Euskal Herrikoak aldarrikapen nazionala biltzen duen, Euskal Herrirako curriculuma norako den, zeren Euskal Herriaren esanahiarekin Euskal Autonomi Erkidegoaren lurralde esparrua aldarrikatzen da, ez besterik.

Izendapen egokiak erabili behar dira. Gauza bakoitzari dagokion izena eman behar zaio. Erreferentziak eta kontzeptuak behar den moduan erabili ezean, are eta nahasmen handiagoa sortzen da, eta nahasten dena iluna da. Gaur egungo egoera politiko-administratiboa onartuta ere, Euskal Herria da komunitate sozio-kulturala edo sozio-historikoa izendatzeko terminorik zuzenena eta zehatzena, gure ustez. Arrazoiak honako hauek dira:

- 1.- Hizkuntza-kultura ardatza definitzen delako: Euskalduna euskaraduna da¹³, euskal kulturaren partaide eta subjektu, euskararen lurraldekoa.
- 2.- Gizabanako-gizataldearen identitateaz jabetua delako: euskal herritar, Euskal Herriko biztanlea, eusko, euskotar, euskozale...
- 3.- Euskal Herria zentzu bietan erabiltzen delako, lurraldeari eta historiari dagozkien esparruetan, Vasconiaren pareko.

2. HISTORIAREN ETA LURRALDEAREN ALDARRIKAPENA

Euskal Herria izendatzeko Europako erdaretan *land*, *lander*, *pays*, *país* erabiltzen dira: País Vasco, Pays Basque, Basque Country, Basken land, eta abar. Guk, geure burua izendatzeko, ordea, Euskal Herria darabilgu. Euskal Herria euskararen lurraldea da, baita euskararen herria ere: euskaraz mintzatzen den herria. Hizkuntzak ematen dio nortasuna taldeari zein lurraldeari, hots, gizataldea eta lurraldea dira euskararenak.

Euskararen lurralde historikoa aldarrikatzen da; Euskarak biltzen gaitu. Aldarrikatzen den lurraldea Euskaraz mintzatzen den eta ezaugarri sozio-kultural amankomunak dituen herriarena da: Euskarak, egoera azpiratu eta diglosikoan

13. Hiztegi Entziklopedikoa, 3000.

eta bere lurraldea erdarekin konpartiturik, dagokion lurraldea beretzat aldarrikatzen du, hizkuntza batek bere lurralde propioa behar baitu iraupena ziurtatzeko.

Euskararen lurraldea zatikaturik dago, Estatu biren menpe; hegoaldean administrazio autonomiko ezberdinetan. Zatiketa politiko administratiboaren ondorioz, barne kohesioa galdu egiten da; beste identitate eta elkartasunak sortzen dira, baina beti erdaren ingurune sozio-kulturaletan, ingurune hegemonikotan, hain zuzen. Horren ondorioz, Euskal Herriko lurralde historikoen artean ere zatiketa nabarmentzen dituzten eragileak aurkitzen ditugu: banaketa autonomikoa berezko bezala irakasten da, Euskal Herriko nortasuna mendebaldeko lurraldeekin identifikatuz, ez, ordea, Iparralde edo Nafarroarekin. Hauen nortasun ezaugarriak ez dira euskaldunak, lehenenak frantsesak, bigarrenenak "nabarrok". Ez dira lantzen eskoletan lurralde historikoen arteko berdintasun eta ezberdintasunak. Ez da, esaterako, paisaia ikasterakoan, Nafarroa eta Bizkaiaren arteko konparaketarik egiten edo Zuberoa eta Arabaren artekorik. Beldur handi barik esan genezake Euskal Herria barrutik dagoela deseginda. Bakoitzari berea zor zaio, baina Euskal Herri barruan.

Lurraldearen erreibindikazioan nazioari zor zaion antolaketa politikoa aldarrikatzen da, Estatua, lurraldeen arteko antolaketa finkoa, herriaren burujabetzan oinarritua eta, ondorioz, barne eraketa dugu aldarrikapen, Euskal Herriko lurralde historikoak uztartuz, elkarren arteko harremanak sustatuz eta proiektu amankomunak eginez. Horretarako tresnarik garrantzitsuenetarikoa Hezkuntza Sistema eta Curriculum Nazionala dira.

Lurraldeak eta historiak egungo sisteman duten esanahia ez da iraganeko beste sistemetan zeukatena¹⁴, espazioa eta denbora kontzeptuak zentzu aldaketa izan dutelako, hain zuzen, kapitalismoak eta Estatu-Nazioaren eraketak eragin dituzten errealitatearen aldaketei erantzuteko¹⁵. Espazioa eta denbora islatzen duten lurralde eta historizitate kontzeptuak ulertzeko, ezinbesteko dugu nazio modernoaren eta Estatu nazionalaren eraikuntzaren prozesuan duten zeregina aztertzea.

Espazio mugatu eta finkoa da lurraldea, Estatuaren izate materiala, mugez markatua. Eskolan ikasten dugu lurralde nazionalaren zabalera, kokapena, eta honetan kokatzen da ikasten denaren gehiena: lurraldearen ezaugarri fisiko-naturalak, paisaiak, geografia, ekonomia, demografia, klimatologia, historia, hizkuntza, kultura eta abar. Lurraldearen irudi grafikoa eskolako lehen irakaspene-

14. Poulantzas, N. (1979, 115), op. cit.

15. "El Estado capitalista tiene de específico, incluso, que acapara el tiempo y el espacio sociales, que interviene en el establecimiento de esas matrices en el sentido de que tiende a monopolizar los procedimientos de organización del espacio y del tiempo, erigidos por él en redes de dominación y de poder. La nación moderna aparece así como un producto del Estado: los elementos constitutivos de la nación (la unidad económica, el territorio, la tradición) son modificados por la acción directa del Estado en la organización material del espacio y del tiempo. La nación moderna tiende a coincidir con el Estado en el sentido de que el Estado incorpora a la nación y la nación toma cuerpo en los aspectos del Estado: se convierte en el anclaje del poder estatal en la sociedad, perfila sus contornos. El Estado capitalista funciona gracias a la nación.", Poulantzas, N. (1979, 117-118): op. cit.

tatik hartzen dugu maparen bidez: mapa eta lurralde nazionala guztiz identifikaturik ikasten ditugu gure izate nazionalaren oinarriarekin, lurraldea sakratu bezala irakasten zaigularik. Batasun nazionalari esker, muga barneko espazioan dagoen guztia homogeneizatu egiten da, lurralde nazionalari edukia emanaz eta nazioaren parte eginez, berezkoa balitz bezala aurkeztuz. Mugei ematen zaien zentzu intemporal faltsua da, bestalde, historian zehar eta egoera ekonomiko zein politikoen arabera errealitate aldakorrek baitira. Mugen aldaketa bada, ez da ezelan ere onartuko, eta onartzekotan ere, homogeneizazioa eta asimilazioaren aldarrikapenean bakarrik egingo da¹⁶.

Espazioarekin batera denbora dugu nazioaren zutabe. Kapitalismoaren antolaketa ekonomikoak denboraren neurketa berria dakar. Estatuak denbora kontrolatu eta bildu egiten du, botere tresna bihurtuz eta Historia Ofiziala monopolizatuz. Historiak norabidea eta helburua du; amaierarik ez, ordea. Denbora honetan unek kateatu egiten dira bata bestearen atzean eta emaitza batean orokortzen dira, oraina lehenetik gerorako pasadizoa bihurtuz¹⁷. *Oraina* trantsizio gune da, *lehenak* eta *geroak* markatua: lehenaren ondorio ezinbesteko den bitartean, etorkizunaren oinarrian dago¹⁸. Gure metahistorian, Bibliaren ikuspegi judu-kristaua dugu oinarrian. Denboraren linealtasunaren erakusle bukaera ona duen historia da, zoriona aurkitzera zuzenduriko historia da, arrazoiaren eta zientziaren etengabeko garapena aztertzen duen historia. Historia bueltarik ez duen Estatuaren eraikuntzan gertatu diren uneen bilketan bihurtuko da¹⁹. Horretarako Estatuak Historia beretzat hartzen du, populu-nazioaren lehena borraratu egiten du eta berreraiki, eta, historizitate partikularrak biltzean, homogeneizatu egiten ditu, desberdintasunak zapuztuz. Azken finean, nazio berriari historia nazionala dagokio²⁰.

16. "Las conquistas modernas han adquirido un sentido muy diferente que en el pasado: ya no son propagaciones a través de un espacio continuo y homogéneo que es añadido, sino expansiones a través de brechas que son cerradas. Sabemos lo que este cierre quiere decir: homogeneización por el Estado nacional de las diferencias, aplastamiento de las nacionalidades en el "interior" de las fronteras del Estado-nación, supresión de las asperezas materiales del terreno incluido en el territorio nacional.", Poulantzas, N. (1979, 127): op. cit.

17. Ibid., 131.

18. Ibid., 134.

19. "La unidad de estos momentos históricos, la orientación de su sucesión, son acaparadas por el Estado moderno, que no tiene legitimación de origen en el cuerpo soberano, sino una serie de fundaciones sucesivas en el pueblo-nación, cuyo destino representa. Este Estado realiza una acción de individualización y de unificación, constituye al pueblo-nación en el sentido de que también representa su orientación histórica, le asigna el objetivo y traza lo que llega a ser una vía. En esa historicidad orientada pero sin fin, el Estado representa una eternidad que él produce por autoengendramiento. Este Estado organiza a la nación en marcha y tiende así a monopolizar la tradición nacional, haciendo de ella el momento de un devenir designado por él y almacenando la memoria del pueblo-nación", Ibid.

20. "El Estado capitalista establece las fronteras, constituyendo lo que está dentro, el pueblo-nación, en cuanto que homogeneiza el antes y el después del contenido de ese cercado. La unidad nacional, la nación moderna, se hace así historicidad de un territorio y territorialización de una historia, tradición nacional, en suma, de un territorio materializado en el Estado-nación: las balizas del territorio se convierten en jalones de la historia trazados en el Estado. Los cercados implicados en la constitución del pueblo-nación moderno no son tan terribles más que por ser, al mismo tiempo, fragmentos de una historia totalizada y capitalizada por el Estado. Los genocidios son eliminaciones de los que pasan a ser "cuerpos extranjeros" en el territorio y la historia nacional, exclusiones fuera del espacio y fuera del tiempo....", Poulantzas, N. (1979, 134): op. cit.

Ezagutzaren kontrola eta produkzioa Estatuaren kontrolpean egotean, Historiaren Erret Akademiak eta historialari ofizialen papera aipagarri bihurtzen dira. Historiaren ikuspegi lineala aurkezten da, aurretiaz Historia Erret Akademia Nazionalak ezagutza zientifiko bezala dogmatikoki ezarri duena. Historizitate modernoa garapenean eta aurrerapenean oinarritzen da, pasatu ahala egiten den denbora da, une bakoitzak ondorengoa sortzen duena, gertaera amaibakoen eta buelta ezineko katearen antzera, etorkizun beti berrirako bidean. Historiaren ikuspegi ofizialean, zientziaren ikuspegi “zientifikoa” aldarrikatuz, nazio hegemonikoa subjektu historiko bihurtzen da, ziklo luzeetako subjektu sozio-historikoa ordezkaturik. Subjektua aldatzean, Historiaren irakurketa zeharo aldatzen da, nazio-sozio-kulturalen ibilbide historikoa ikuspegi horren menpe jarritik. Historialarien esku dago, hain zuzen, kontzientzia nazionala osatzeko dau den bi osagaien kontrola: batetik, Historiografia Ofiziala eta, bestetik, Hezkuntza Sistemaren arautzen den curriculumaren osaketan proposatzen den Historia ikuspegi, hots, funtsezko gertakari nazionalen hautaketa. Ikuspegi ideologiko ezberdinen gainetik Estatu-nazioaren eraikuntzan izan diren funtsezko gertakariak ere beti agertzen dira. Hauxe da egungo edozein hiritarrek jaso duen heziketaren parte bat, Pierre Vilar historialariak bere heziketari buruz egiten duen hausnarketan argi adierazten den bezala²¹:

Es en el sistema docente donde suelen ser más eficazmente programados los contenidos, recursos y objetivos educativos de una sociedad. Las psicologías colectivas, materia sin embargo resistente, son susceptibles de modificación, a veces rápida. Recorro, una vez más, a mi propia experiencia. Si yo había ignorado que existiera una cuestión catalana, occitana o vasca, es porque los problemas de “nacionalidad” no incluidos en el Tratado de Versalles no entraban prácticamente jamás, en Francia, durante el primer cuarto del siglo XX, en los temas de información y educación. La confusión Estado-Nación tanto para España como para Francia, formaba parte de las verdades establecidas. Un ejército de maestros nos inculcaba (y quiero precisar: sin autoritarismo, sin menosprecio para la tradición) una ideología francesa, patriótica, republicana, mientras que todo “provincialismo” era considerado, en cambio, como una nostalgia del “antiguo régimen”. Me encontré involucrado en un proceso clásico: “ascendido” a París, integrado sin problemas en la Universidad “nacional” donde historiadores y sociólogos, en primer lugar, se situaban fácilmente en la línea jacobina. Era claro que el sistema vigente tenía sus “programadas” ignorancias. Y sin embargo, el historiador disponía de un pasado, del que se supone que posee un conocimiento científico, capaz de evitar el escollo de estas manipulaciones por parte del sistema educativo.

Euskal Herria Estaturik gabeko nazioa denez, historia ofizialik ez du; Europako herri zaharretarikoa den arren, Historiarik ez daukan herria da. Bizirik irauteko, bere memoria jaso eta historia eraikitzeke eta irakasteko eskubi-dea aldarrikatzen du.

21. Intxausti, J. (1985, 538): “Historia, Nación y Nacionalismo. Conversaciones con el historiador Pierre Vilar”. In *Euskal Herria II, Errealitate eta Egitasmoa*, Lankide Aurrezkoa.

3. CURRICULUMA ETA EZAGUTZA, IDENTITATEA, INGURUNEA ELKARREN ARTEKO ERAGINEAN

Curriculumari buruz planteatzen den edozein azterketak aipatu arloak islatze-ko baldintza zehatzak betetzea eskatzen du: aztertzen zein eskultzen dena kues-tionatu beharra dago; era berean, curriculumaren eta prozesu kultural zabalagoen artean dauden loturak zehaztu eta identitate zabalagoen eraikuntzan duten eragi-na aztertu beharra, kontuan hartuta klase sozialak, adinak, generoak, arrazak, errealitate etniko-kulturalak eta Estatu-nazioak baldintzaturik daudela. Azkenik, Curriculuma prozesu kulturala den heinean, pribilegio eta menerapen harremanak aztertu beharra dago, Hezkuntzaren eta Eskolaren funtzioa praktika politikoaren testuinguruan kokatzen baita²². Ildo hau, azken finean, honako arlo nagusi biotan laburbiltzen da: batetik, pertsoneri zor zaizkien eskubide-pertsonalen eta jabeei zor zaizkien jabego-eskubideen arteko kontraesanetan eta bestetik, estatu-nazioas-kodunek eta nazio soziokulturalek aldarrikatzen dituzten eskubideen artekoetan.

Europar egun dauden Oinarrizko Hezkuntzako curriculum ofizialak bai oinarriz-ko ezagutzen hautaketan –mendebaldeko kultura “unibertsale”-an oinarrituak–, zein orduen eta denboraren banaketan gero eta antzekoagoak dira. Ezagutza zien-tifikokoaren ereduak finkatzen da, desberdintasunak Estatu-nazio bakoitzari lotutako edukietan markatuz, batez ere ezaugarri soziopolitikoetan, ekonomikoetan, geo-grafikoetan eta historikoetan. Sakonean, curriculumak Estatu moderno nazio-as-kodunaren oinarrizko ardatzak biltzen ditu kasu guztietan, Estatu-nazio antolake-taren erreproduktzioa bideratzera zuzendutako irakaskuntza bat eskainiz. Oinarri-oinarririen lurralde bakarrean biltzen diren herriak berdintzea bultzatzen da, baita klase sozialak eta gizabanakoak eurak bere.

Eskola ezagutzaren banatzaile eta sortzaile da. Bertan irakasten den ezagu-tza ofiziala indar hegemoniko eta ez hegemonikoen eztabaiden arteko fruitu da, neurri batean behintzat, eta identitatearen eraikuntzan ezagutzaren isla den Curriculumaren edukiak zuzeneko eragina izango du, baita esanahi eta balore kulturalak eraikitzean ere, maila pertsonalean ez ezik, maila sozialean ere eraiki-tzen baitira. Curriculumada bada, ez da eraikuntza neutroa. Islatzen duen ezagutza berezia da, hautatua, hain zuzen, talde hegemonikoena. Baina, *ezagutza hege-monikoaren* arazoa ez da benetako ezagutza zein den jakitea, zein ezagutza aukeratzen den benetako bezala baizik:

La preocupación es por qué procedimientos ciertos conocimientos son vistos como legítimos, en detrimento de otros, a los que se juzga ilegítimos.

Ezagutza hegemonikoa hegemonia harremanen menpe dagoen heinean, prozesu batez ari gara. Hau Curriculum ofizialean eta ezkutuan islatzen da, argi-

22. “En primer lugar, la educación, sea en la universidad, la escuela secundaria, la primaria o en la alfabetización de adultos, es un acto político. ¿Por qué? Porque la naturaleza misma de la educación tiene las cualidades inherentes para ser política, así como la política posee aspectos educativos. En otras palabras, un acto educativo tiene naturaleza política, y un acto político tiene naturaleza educativa”, Macedo, D. (1990, 184-185): “Revisión de la Pedagogía Crítica. Entrevista a Paulo Freire”. In Freire, P.: *La naturaleza política de la educación*, Paidós, Barcelona, 172-195 orr.

taletxeen diskurtsoen, proiektu pedagogikoen eta testuliburu bidez. Hori dela eta, Apple-k curriculum ofiziala eta ezkutukoa proposatzen ditu aztergunez: eguneroko curriculum ezkutua elkar-harremanak eta erregularitateak²³; irakasleek filtratzen duten eta testu eta materialetan planifikaturik datorren ageriko curriculum, eta, azkenik, irakasleek eskolan antolatzeke, ebaluatzeke eta planifikatzeko erabiltzen dituzten irizpideak. Ageriko curriculumak bideratzen dituen Identitate Pedagogikoak²⁴ ere Curriculum Ofizialean egiten den ezagutzaren hautapen ideologikoaren eta kulturalaren bidez eraikitzen dira.

Identitate pedagogikoa ezagutzen karrera da, karrera morala eta baita karrera lokala. Karreraren oinarri kolektiboa ordenu sozialaren printzipioen arabera da, Estatuak erakundetu eta Hezkuntza sistemaren bidez zabaltzen duena. Karrera honen oinarri sozial lokala testuinguru lokalean dauden ordenamendu sozialen arabera da eta inguru soziokulturalak baldintzatua. Baina Eskolan eraikitzen diren Identitate Pedagogikoek oinarrian Estatuak eraikitako ezagutza ofiziala dute, Hezkuntza erakundeek banatua. Galdera honako hau da, zertan oinarritzen da ezagutza ofizial hau? Erantzuna Apple-k ematen digu Ezagutza ofizialaren inguruan sortzen den kontzentzuaren jatorria aztertzean: botere harremanek eta erregioen historia politiko-ekonomikoak markatu dute Ezagutza Ofizialaren hautaketa, indar hegemonikoen botere ahalmenari esker. Are gehiago, Ezagutza ofiziala *Estatuak eraiki eta Hezkuntza sistemaren bidez banatzen duen ezagutza akademikoa da*²⁵. Ikasten dugunak, ezagutzak, pertsonaren identitatearen eraikuntzan eragin zuzena du.

Soziologiatik abiatuta, identitatea esperientziaren eta zentzuaren iturria da jendearentzat. Ez da izenik gabeko jenderik ezagutzen, ez eta ni eta inoren edo geu eta euren arteko ezberdintasuna markatzen ez duten hizkuntzarik edo kulturarik. Pertsonaren nortasuna edo identitatearen eraikuntza inguru soziokulturalak eta hizkuntzak baldintzatua aurkitzen dugu:

Por identidad, en lo referente a los actores sociales, entiendo el proceso de construcción del sentido atendiendo a un atributo cultural, o un conjunto relacionado de atributos culturales, al que se da prioridad sobre el resto de las fuentes de sentido²⁶.

Aktore sozialak identitate eta rol aunitz izan ditzake; identitateak zentzua antolatzen duen bitartean, rolak funtzioak:

23. Apple, M.; Weis, L. (2001, 144): "Una visión relacional de la Educación: la estratificación de la cultura y la gente en la sociología del conocimiento escolar" in Apple, M.W.: *Teoría Crítica y Educación*, Miño y Dávila ed. Madrid, Buenos Aires.

24. Ikuspegia osatzera Basil Berstein-en azken lanak datoz. Egin berri dituen zuzenketetan Apple-k landutako Ezagutza Ofiziala osagarritzat hartzen du, berak lantzen duen Identitate Pedagogikoaren eraikuntzan azpi-identitate bi ezberdinduz: Estatuaren Identitate Pedagogiko Ofiziala eta Talde eta Komunitateetan dauden Identitate Lokalak edo Tokian-tokikoak.

25. *Ibid.*, 12-13 orr.

26. "Defino sentido como la identificación simbólica que realiza un actor social del objetivo de su acción", Castells, M. (2000, 29): *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. 2 El poder de la Identidad*, Alianza Editorial, Madrid.

El sentido se organiza en torno a una identidad primaria (es decir, una identidad que enmarca al resto), que se sostiene por sí misma a lo largo del tiempo y el espacio²⁷.

Oinarrizko identitate honek izaera *indibiduala* (izaki biologiko materialen ekintzetan oinarritua) *soziala* eta *kulturala* du; *oraingoa* da (unean-uneko egoerak markatua), eta baita *historikoa* ere (lehenak baldintzatua eta gerora zuzendua). Identitatea entitate erreala da eta norbanako biologikoa da entitate horren subjektua²⁸. Horrela, subjektu batek identitate pertsonala, soziala, nazionala eta supranazionala²⁹ eraikitzen ditu bizitzan zehar, identitatea eraikuntza baita, ikuspegi soziologikotik behinik behin³⁰. Norbanakoak, entitate bakarra den heinean, nortasun pertsonala du eta, aldi berean, ingurune sozial eta kultural jakin bateko gizakide den aldetik, identitate sozio-kulturala. Kontzientzia hartzen du bera partaide den giza-taldearen ezaugarriez, zentzu sinkronikoan, eta horren memoriaz, zentzu diakronikoan. Horrela betetzen du pertsonak bere burua zerbaitekin identifikatzeko duen ezinbesteko beharrezana. Arazoaren funtsean dagoena, ordea, zera da: nola, nondik, norengandik eta zertarako eraikitzen den identitatea.

La construcción de las identidades utiliza materiales de la historia, la geografía, la biología, las instituciones productivas y reproductivas, la memoria colectiva y las fantasías personales, los aparatos de poder y las revelaciones religiosas. Pero los individuos, los grupos sociales y las sociedades procesan todos esos materiales y los reordenan en su sentido, según las determinaciones sociales y los proyectos culturales implantados en su estructura social y en su marco espacial/temporal. Propongo como hipótesis que, en términos generales, quien construye la identidad colectiva, y para qué (sic), determina en buena medida su contenido simbólico y su sentido para quienes se identifican con ella o se colocan fuera de ella. Puesto que la construcción social de la identidad siempre tiene lugar en un contexto marcado por las relaciones de poder, propongo una distinción entre tres formas y orígenes de la construcción de la identidad³¹.

Hiru identitate mota desberdintzen ditu Castells-ek: bata, *Identitate legitimatzailea*, gizarteko erakunde menperatzaileek sortua eta hedatua, bere hegemonia zabaltzeko eta arrazionalizatze³². Bigarrena, *Erresistentziako identitatea*,

27. Ibid.

28. Rosa, A.; Bellelli, G.; Bakhurst, D. (Eds.) (2000, 42): *Memoria colectiva e identidad nacional*. Biblioteca Nueva, Madrid.

29. Ibid., 40-42 orr.

30. Castells, M. (2000, 29): *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. 2 El poder de la Identidad*, Alianza Editorial, Madrid.

31. Ibid.

32. "Las identidades legitimadoras generan una sociedad civil, es decir, un conjunto de organizaciones e instituciones, así como una serie de actores sociales estructurados y organizados, que reproducen, si bien a veces de modo conflictivo la identidad que racionaliza las fuentes de la dominación estructural. ...Donde Gramsci y Tocqueville ven democracia y civilidad, Foucault o Sennett y antes de ellos, Horkheimer o Marcuse, ven dominación interiorizada y legitimación de una identidad normalizadora sobreimpuesta e indiferenciada". Ibid., op. cit., 29 or.

menperakuntzaren logikak sortutako egoera txarretan aurkitzen direnak sortua³³. Bizirik irauteko erresistentzi moduak sortu eta garatu egiten dituzte, gizarteko erakundeen ez bezalako oinarriak erabiliz. Azkenik, *Proiektu identitatea*, aktore sozialek eurek dituzten tresna kulturalak erabiliz, identitate berria sortzen dutenean; eurek gizartean duten kokapena berdefinitzean, gizarte osoaren eraikuntza aldatzea bilatzen dutenean, esaterako, generoaren inguruan sortutako identitate berriak. Prozesu honek subjektuak sortzen baditu ere, aktore sozial kolektiboak dira, eta honen bidez gizabanakoak euren esperientziaren zentzu holistikoa lorzen dute³⁴. Erresistentzi bezala hasten diren identitateek proiektua sor dezakete eta, historiaren joan etorrian, menperatzaile ere bihur daitezke, gizarte erakundeetako identitate legitimatzaile bihurtzean, euren menerapena arrazionalizatze-ko. Identitatearen eraikuntza prozesua aurrerakoia edo atzerakoia izan daiteke, beti ere bere testuinguru historikoaren arabera, identitatearen politika historian kokatu behar baita³⁵.

Haurrak bizi duen Inguruneak, curriculumean egiten den ezagutza ofizialaren hautaketak eta argitaletxeek testu-liburuetan egiten duten edukien planifikazioak eta erabilera didaktikoak haurraren nazio-identitatearen eraikuntzan eragin zuzena dute. Hirurek baldintzatzen dute haurrak eskolan ikasten duen edukiaren izaera eta honek haurraren identitatearen eraikuntza. Euskal Herriko eskoletan irakasten den edukiaren azterketa egiteko, testuliburuarena egin dugu, tresna didaktikorik erabiliena delako ikasgelan.

Euskal Herriko testuinguruak ezaugarri zehatzak aurkezten ditu: errealitate sozio-kulturala izateak berezko identitatea ematen dio. Era berean, Estaturik gabeko nazio izatean identitate nazional hegemonikoa azpiraturik duten bi Estaturena da, Frantziarena eta Espainiarena. Nazio-identitateak pertenezia sentimendua du iturburu eta ez da beti kontzientea, nahiz eta askotan hala izan³⁶. Pertenezia eta sentimenduak aipatzean, izaera sozio-kulturala, linguistikoa, historikoa eta politikoa hartzen ditugu kontuan³⁷. Baina ofizialki hiritarrak du naziotasuna, Estatu bakoitzak legez arautzen baitu bere hiritarrei hiritartasuna emateko modua eta ondorioz naziotasuna. Kontuan hartu behar dugu kasu honetan, Estatu nazioaskodunak izanik, azpiraturik dauden Nazio Sozio-Kulturalen kide diren hiritarrek, Nazio-Hegemonikoaren identitateaz gain, euren errealitate sozio-kulturala islatzen duen Nazio-kontzientzia ere aldarrikatzen dutela, Nazio-Identitate bikoitza garatuz: Nazio azpiratuarena, erresistentziako identitatea, eta Nazio hegemonikoarena, identitate hegemonikoa.

33. "Identidad de resistencia: generada por aquellos actores que se encuentran en posiciones/ condiciones devaluadas o estigmatizadas por la lógica de la dominación por lo que construyen trincheras de resistencia y supervivencia basándose en principios diferentes u opuestos a los que impregnan las instituciones de la sociedad", *Ibid.*, 29 or.

34. *Ibid.*, 32 or.

35. La política de la identidad, "debe situarse en la historia", Zaretsky, E.: "Identity theory, identity politics: psychoanalysis, marxism, post-structuralism". En: Calhoun, (ed.) (1994, 198-215): op. cit.

36. Vilar, P. (1997, 40): *Pensar históricamente. Reflexiones y recuerdos*. Barcelona: Crítica.

37. Azurmendi, J. (1992): "Esencia y esencialismo: análisis de un concepto". In: Palacios, X. (de.): *Ética y nacionalismo*, UPV, Vitoria, 163-221 orr.

4. TESTULIBURUA EZAGUTZA OFIZIALAREN BILTZAILE

Ikas-materialen artean testuliburua da ikasmaila gainditzeko derrigor ikasi eta jakin beharreko edukia zehatzen eta planifikatuaren biltzen duena. Baliabide hau izendatzeko modu ezberdinak erabili dira euskaraz: Ikasliburua, ikasteko den liburua, gure ustez ikasteko erabiltzen den edozein libururi legokio –atlasa, irakurgai bilduma, ariketa osagarriak dituena, entziklopediak etbar-. Testuliburuak edo manualak, ikasliburuak izanda, badute euren berezitasuna: aurkezten duten informazioan ebaluaketa probetan eskatzen den gutxiengoa biltzen da, ikasturtea gainditzeko ikasi beharreko edukia landuz. Azken hau da gure lanean zehatz-mehatz aztertzen dugun materiala, eta *testuliburua* erabiliko dugu zehaztasunaren mesedetan. Dena den, kontuan hartu dugu Iparraldeko eskoletan sinonimotzat erabiltzen den *manuala* ere.

Aspaldian testuliburuak pedagogi kontsumo bezala erabiltzen dira. Eztabaida polemiko askoren aitzakia bihurtu dira; eskoletan erabiliak eta preziatuak batzuentzat, balore akademiko zein zientifiko guztia galdua besteentzat; hain da ekoizpena ugaria, urtero berritzen da. Azken urteotan egindako ikerketak era askotakoak izan dira: aintzinako testuliburuaren eduki ideologiko edo pedagogikoa aztertu da; joera berrietan, testuari edo irudiari buruzko ikerketak egin dira, euren arteko harremanak, erabilitako hizkuntza ereduak buruzkoak, eta abar; edukia eta diziplinen inguruko ikerketak: matematika, literatura, geografia edo historia; ikasgelan testuliburua irakaslearen eta ikaslearen bitarteko bezala ere ikertua izan da. Ikerketa lerroen artean funtzio ideologikoarena da gure lanerako ikertua izan den esparru emankorra, testuliburuaren eta irakaskuntzan talde hegemonikoez ezartzen duten kontrola argi utziz³⁸. Pentsaera ofiziala eta hegemonikoa indartzeko erabilia da testuliburua, testu idatzi zein irudiaren bidez. Azken finean, garaian garaiko eskola testuliburuan islatzen da, eskola memoria modura ulertuz, sasoiari sasoi curriculumak testuliburuan erretratatu direlako. Choppin-en esanetan³⁹, testuliburuan gizarateak bere buruz eman gura duen irudia islatzen da, ispiluan bezala.

Testuliburua curriculumak islatzen eta garatzen duen baliabide didaktiko bezala aztertuko dugu segidan. Testuliburuak maila jakinean zehazteko hautatu eta islatu egiten du curriculum ofizialak markatzen duena, Gutxiengoen Ezagupenen Dekretuan. Edukiak aukeratzekoan, ezkutuko curriculumak garatzen du, hautaketaren bidez: informazio edo eduki batzuk lantzen ditu, baina beste asko, ezagutza hegemonikoa ez diren asko, aipatu eta landu barik uzten ditu. Horrela bideratzen du errealtatearen ikuspegi zehatza. Irakaskuntzan eta ikasgeletan erabiltzen den tresna arrunt hau –batere aseptikoa ez dena, bestalde-, sakon aztertu behar dugu, beraz: testuliburuaren bidez ezagutzera ematen diren gizarate

38. Apple, M. W. (1996, 92-93) : *El conocimiento oficial: la educación democrática en una era conservadora*, Paidós, Barcelona. –(1989): *Maestros y textos: una economía política de las relaciones de clase y de sexo en educación*, Paidós, M.E.C., Barcelona.

39. Choppin, A. (1992): *Les manuels scolaires, Histoire et actualité*, Hachette, Paris.(2000): "Pasado y presente de los textos escolares". In: Ruiz Berrio, J. *La cultura escolar de Europa*, Biblioteca Nueva, Madrid.

eredua, eduki zehatzak, inguru soziokulturalaren ezaugarriak, ikaslearen identitatearen eraikuntzan eragin zuzena du, munduaren eta ingurunearen ikuspegi zehatza eta bakarra bideratuz.

Ikasgelan darabilgun ikasmaterialik garrantzitsuena da testuliburua, informazio iturri zuzena eta handiena honen bidez jasotzen delako. Bi modutan darabilgu baliabide didaktiko hau: ikasleak zuzenean ikasgai gisa hartzen duenean edo/eta irakasleak irakasgaia prestatzeko testu edo informazio iturri bezala erabiltzen duenean, curriculum ofizialak markatzen duen gutxiengoaren zehaztapena zein den mugatzeko, batez ere. Gimeno-ren⁴⁰ esanetan testuliburua ezinbesteko tresna bilakatu da irakaskuntzan, curriculum ofizialaren itzulpena egin eta gelara hurbiltzeko moduan jartzen duelako. Testuliburua da irakaste-ikaste prozesuetan gehien erabiltzen den baliabide curricularra, funtsezko tresna, eta leku garrantzitsua betetzen duena ikasgelan garatzen diren harremanetan. Irakaslearentzat tresna eroso da eta erabilerraza ikaslearentzat. Merkatu pedagogikoren % 85 mugitzen dute *textbook* edo testuliburuak munduko estaturik gehienetan, Unesco-rentzat egindako ikerketa lan batek dioenez⁴¹.

Autore askoren ikerketetan islatzen da irakasleek liburuarekiko duten menpekotasuna, honek zubi lana betetzen du eta:⁴² testuliburua, berez, curriculumaren eta ikaslearen arteko zubia da, curriculuma ikasleari hurbiltzeko irakasleak erabiltzen duen tresna delako⁴³. Argitaletxeek curriculum ofizialak agintzen duenaren eredu praktikoa proposatzen dute testuliburuan; hauek irakasleak egin behar duen azken zehaztapen maila egitean, –irakaskuntza ikasgelatik kanpo planifikatzean eta neurtzean–, irakasleari denbora aurreztu egiten diote eta, gainera, lan bat kendu. Gehienetan proiektu gisa antolatzen dira argitaletxeen testuliburuak, mailaz-mailako zehaztasunak eginez, etapako irakasle taldeak bete beharko lituzkeen lanak ordezkatuz eta uzten zaien lan bakarra hautatzearena delarik. Baina guzti honek badu testuinguru bat, irakaslearen lan baldintzena; askotan, irakaslea egunerokotasun estu eta itoan bizi da eta egoera laboralak testuliburua erabiltzera bultzatzen du; bere profesiozko lan kualifikatua –lan munduko harremanen ondorioz– hustu egiten da funtsezko funtzioetan, sorkuntza-burutze prozesutik eta irakatsi behar duenaren planifikazioaren kontroletik aldentuz: sistema berez erosoagoa da, lana egina heltzen baitzaio testuliburuan irakasleari.

Argitaletxeen aldetik begiratuta, ezagutzaren plangintza egitean, talde boteretsuen morroi lana egiten dute, legediak agintzen duen gutxiengoa antolatuz, zabal planteatutako curriculuma itxiz, talde ekonomiko edo politikoen nahietara egokituz. Argitaletxeak enpresak dira, talde ekonomiko boteretsuen, hegemoniko

40. Gimeno, J. (1998): *El curriculum, una reflexión sobre la práctica*, Morata, Madrid.

41. Richadeau, F. (1981): *Concepción y producción de manuales escolares. Guía práctica*. Unesco, Bogotá-Paris.

42. Apple, W.M. (1996, 93): "aunque muchos profesores utilizan el libro de texto como punto de partida, en vez de seguirlo al pie de la letra, de hecho muchos de los profesores emplean el texto como el artefacto curricular fundamental en el aula en un grado notable", op. cit.

43. Bilbao, B.; Ezkurdia, G.; Perez Urraza, K. (2001, 183): op. cit.

zein erresistenteen, eskuetan daudenak, euren kapital kulturala zabaltzeko helburua dutenak. Testuliburuaren azaleko aldaketan bidez, edukia eta ezagutza berdintsua mantentzean eta, bidez batez, dirua irabazteko produkzio kostea gutxitzean, luzaroan iraun dezaketen produktuak egiten dituzte. Aspaldiko partez, ordea, azkeneko bi hamarkadetan merkatuan dagoen baliabide curricularren oferta nabarmen handitu da, argitaletxeen arteko borroken eta kompetentzien ondorioz, produktuak gero eta landuagoak eta zehatzagoak eskaintzen baitira.

Botere handia dute argitaletxeek, curriculum ofizialean ordezkatzeko duten taldeen irizpide kultural, ekonomiko eta pedagogiko zehatzen arabera agintzen dena edukien bidez betetzean, errealtatearen interpretazioa egiten dute eta. Argitaletxe bakoitzak berea⁴⁴. Dena den irakaskuntza ez da unidirekzionala, elkarren arteko eragina duena baizik. Horretan irakasleen eragina dago. Askotan curriculumaren moldaketak egiten dituzte, ageriko curriculumak ikas-irakas egokerrara egokitzeko. Ezkutukoaren bidez eta testuliburuak proposatzen dituzten ikuspegi ordezkoak lantzean ere, irakasleek eurek planifikaturiko ezagutzak transmititzen dituzte. Elkar eragite horretan ikasleen interpretazioa ere badago, zeinetan zentzu eta testuinguratze aldaketak gertatzen diren, eta kultur erresistentziak sortzean, erreproduzioaren dinamika bera eragozten da⁴⁵.

Amaitzeko, testuliburuak ikaslearen identitatearen eraikuntza bideratzen duela susmatzen dugu, errealtatearen ikuspegi bakarra ematean. Horregatik gure ikerketa honetan testuliburuaren edukia aztertzea dugu xedetzat. Edukia nola antolatu eta testuinguratzen den aztertu nahi dugu, testuliburuetan islatzen den edukia zein den eta nolakoa den jakiteko.

5. TESTULIBURUETAN EUSKAL HERRIA GAIAREN ERABILERA AZTERTZEKO HAUTATU DUGUN LAGINA

XIX. mendean hezkuntza-sistema estatalak sortzen direnetik darabiltzagun testuliburuaren edukia ez dira beti berdinak izan eta ez dira beti berdin landu. Edukia lekutzeko erabili izan diren erreferenteak ere aldatuz joan dira. Edukia nola eta non zehazten den garrantzizkoa da informazioaren nolakotasunari begira.

Lan honetan lurraldearen eta historiaren edukiei eman diegu garrantzia. Ikerketako laginean XX. mendean euskaraz idatzitako testuliburuak aztertu ditugu, baita horien parekoak diren ere, gaztelaniaz eta frantsesez idatzitakoak. Lehen Hezkuntzako 5. mailakoari dagozkionak. Testuliburugintzak izan duen garapena oinarritzat hartuta, hiru epe mugatu genituen XX. mendeko datuen azterketarako eta beste laugarren bat XXI. mendeko hasierakoetarako.

Lehengoa da denboran luzeena –1876tik 1974 bitartera baitoa– baina aldaketa handi-handirik ez dago. Argitalpen horietan bertan bizi den egoera eta gertaerak eragin handia dute, euskarazko testuliburu gehienak Hegoaldean ekoizten baitira.

44. Ibid., 184 or.

45. Ikus Apple, (1996, 80): op. cit.

Hirurogeita hamargarren hamarkadatik aurrera –1975-1990an mugatu dugu bigarren epea–, da aldaketa politikoa ekarriko duena, sistema publikoan euskarazko irakaskuntza abian jarriz, eta berarekin, euskaraz ekoiztuko diren testuliburuaren gorakada eraginez. 1990da hurrengo aldaketa nagusia –1990-2000– mugatuko duena, hegoaldeko lege berrien indarrez. Egoera hauek dira epe bakoitzean edukiak modu desberdinean lekutzearen kausa. Iparraldeari dagokionez, XX. mendearen amaierak lan berriak argitaratzea dakar; Ikas-bi taldeak moldatzen ditu batzuk eta Ikas talde pedagogikoaren eskutik datoz besteak (Bilbao, Pérez, Ezkurdia, 2007).

Azkenean, XXI. mendera helduta, 2000. urtetik 2006era bitartean argitaratu diren testuliburuak gehitu ditugu. Hurrengo taulan adierazten dira laginaren ezaugarri zehatzak:

1. taula. Testuliburuaren ezaugarri formalak epeka

	Testuliburu kopurua	Orri kopurua	Ikono kopurua	Ikonoak orriko
1. aroa (1876-1974)	14	2.692	2.649	0,98
2. aroa (1975-1990)	26	4.644	8.386	1,81
3. aroa (1991-2000)	30	5.974	11.193	1,87
4. aroa (2000- 2006)	20	3.791	6.953	1,83
Guztiz	90	17.101	29.181	1,62

90 testuliburu irakurri ditugu, eurotan 17.101 orrialde aztertuz eta 29.181 ikonoetako edukia mugatuz. Hasi egin da ikono kopurua, bikoiztu ere bai, mende bateko ibilbidean. Oraingo testuliburuetan, euskarri multimedien egiten den antzera, ikonoa idatziz adierazten dena laguntzeko erabiltzen da. Gure lanean ikono eta testu idatziaren lotura zein den aztertu dugu, garrantzi handia baitu ikonografiaren mezuak testu idatziarekin duen loturak. Testuingurua zein den arakatu dugu, zehaztua den edo ez, eta zehazten denean zeri lotzen zaion.

Lehen aroan (1876-1975) ikono gutxi erabiltzen zen, ez da ikonorik orri guztietan. Hurrengo aroetan, ordea, nabarmen hazten da ikono kopurua orriko, bigarreneko (1975-1991) 1,81etik hirugarreneko (1992-2000) 1,87ra, laugarren aroan (2000-2006), aldiz, jaitxi egiten da 1,83ra.

Euskal Herriko eskoletako testuliburuetan lantzen den ingurunearen nolakotasuna neurtzeko, gizarte honetan ematen diren kontraesan nazional eta hizkuntzar-tekoak islatu nahian, bi ingurune definitu ditugu: Ingurune hegemonikoa, estatala, frantsesa eta espainola, azken hau autonomietan antolatua; eta, Erresistentziakoa, Ingurune sozio-historikoa deitu duguna, etxean, familian, eskolan euskal kulturaren bidez jasotzen dena gehienetan. Bi inguruneak ezberdintzeko kategorizazio bat fin-

katu dugu, nolakotasuna neurtu nahian, sei marka desberdinduz: izaera Soziohistorikoa, Juridikoa, Nahasia, Erdal, Estatala eta Zehaztu gabea.

6. EUSKAL HERRIAREN LURRALDEA XX. ETA XXI. MENDEETAKO TESTULIBURUETAN


Euskal Herriaren lurraldearen zabalera aztertzerakoan ikuspegi ezberdinak aurkitzen ditugu. Batetik, badira testuliburu batzuk Euskal Herria errealitate sozio-kultural bezala aztertzen dutenak. Euskal Herria errealitate sozio-historiko bezala ulertzen dutenen artean aurkitzen dugu Euskal Herriko lurraldea Euskararen lurralde historikoarekin loturik, hau da, sei –edo zazpi– lurraldez osaturik.

Beste batzuk, Espainiako “País Vasco” edo Euskadi, Estatuko lurralde autonomiko bezala aztertzen dutenak. Azken mendearen amaieratik datorkigun errealitate politiko administratiboa islatzen dute, Euskal Autonomi Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea desberdinduz, Espainiaren barne, betiere. Aspaldi honetan Euskadi Autonomi Erkidegoa Euskal Herria terminoaz izendatzen da, nahasmena sortuz.

Nafarroa beti desberdintzen da, gehienetan errealitate autonomikoa islatzeko. Batzuetan, errealitate politiko-historiko bezala lantzen denetan, identitate politikoa izan duen lurralde bezala lantzen da, beti Euskal Herriarekin loturik.

Landutako laginean, lurraldeak zenbatetan aipatzen diren neurtu dugu, mapen, argazkien, zein marrazkien bidez, eta hurrengo grafikoan bertan aipatzen da, 1876an hasi eta 2006an bukatzen den epean, ehuneko zenbatetan erabili izan diren.

1. grafikoa. Lurraldeetako ikonoen batezbesteko portzentajea XX. eta XXI. mendeko testuliburuetan




Lehen grafiko honetan ikonoen kokapena lurralde ezberdinen arabera neurtu dugu. Ikonorik gehien Espainian kokaturik aurkitzen dugu, % 38an. Hurrenez hurren, % 17an Espainiako Euskal Autonomi Erkidegoan, hain zuzen. Gero

% 13an Euskal Herriko ikonoak ditugu, eta ondoren European kokatutakoak % 12an. Gutxien Farntzian eta Nafarroako Foru Komunitatean kokatutakoak dira, % 10ean biak.

Baina goazen zehaztera. Datu orokor hauek aroka aztertzen baldin baditugu, lurralde kontzeptuaren garapenera eta erabilerara hurbiltzen gara.

2. grafikoa. Lurraldeetako ikonoen portzentajea, lau aroetan



Lehen aroan (1876-1975) oso ikono gutxi erabiltzen da testuliburuia ilustratzeko. Ikonorik gehien Frantziako testuliburuetan aurkitzen dugu % 17arekin, sasoiiko aurrerakuntzaren isla. Ondoren, Euskal Herrian kokatutakoak daude % 3 t'erdian. Aro honetan sortu ziren euskaraz idatzitako testuliburuak eta European modan zeuden joeretatik edaten zuten; oso modernoak ziren sasoirako. Adibidez, *Xabiartxon* koloreetako ikonoak erabiltzen dira orri guztietan eta *Lutelestian* kolore bakarra erabiltzen den arren, mapak koloreztaturik aurkitzen ditugu. Liburu honetan argazkiak aurkitzen ditugu lehen aldiz, zuri-beltzean, sasoirako oso errekurso aurrerakoia zena.


European eta Espainian kokatutako ikonoen portzentajea ez da % 3ra heltzen. Besteetan ez dago daturik, oraindik ez baitzegoen Autonomia Estaturik Espainian.

Bigarren aroan (1975-1991) gehienak Euskal Herrian kokatutakoak dira % 41,50ean, eta hirugarrenean (1992-2000) portzentajea berdintsu mantentzen da % 40,50ean. Laugarren aroan, ordea, izugarrizko beherakada aurkitzen dugu, Euskal Herrian kokatutako ikonoak % 14 dira. Hauen orde Euskal Autonomi Erkidegokoak ditugu, % 45arekin, eta Nafarroako Foru Komunitatean kokatutakoak % 55arekin. Azken hauen gorakada handia da hirugarren arotik laugarrenekora, 14 puntukoa, hain zuzen. Hauekin batera, Espainian kokatutako portzentajea nabarmen handitzen da, hirugarren aroko % 22tik laugarren aroko % 43ra pasatzen baita. Kontuan hartzen baldin badugu Autonomiak Estatuko antolaketari erantzuten diotela, garbi baieztatu genezake ikonoen kokapena gero eta estatalagoa dela.

Frantziako lurraldean bigarren aroan (1975-1991) kokatzen dira ikonorik gehien % 10arekin, hurrengo aroetan % 21aren ingurura jaitsiz.

Europar kokatutakoak antzeko portzentajeetan aurkitzen ditugu % 32aren eta % 36aren tartean. Ikus dezagun ondoren zer gertatzen den hizkuntza ezberdinetan idatzitako testuliburuetan.

3. grafikoa. Lurraldeen gaineko aipamenen portzentajea euskaraz idatzitako testuliburuetan, aroa




Euskaraz idatzitako testuliburuetan 2. grafikoa aipatu dugun joera berresten da. Euskal Herria ia % 70ean lantzen da lehen aroko (1876-1975) testuliburuetan. Sasoi honetako testuliburuak ez dira asko, baina Euskal Herrian eginak daude; bertako ikasleei zuzendutako materialak dira, eurren lurraldea ezagutu dezaten eginak, Eusko Ikaskuntzako Lehen Kongresoan erabaki ziren ildoak jarraiki. Hurrengo aroetan, aldiz, Euskal Herria lantzen bada ere, modu apalagoan egiten da, portzentajea % 30aren ingurukoa da 2. (1975-1991) eta 3. aroetan (1992-2000), eta %10era ez da heltzen laugarren aroan (2000-2006), portzentajea 60 puntutan galduz.

Horren orde, Espainiako ikonoen presentzia gero eta nabarmenagoa da, lehen aroko (1876-1975) % 20tik laugarren aroko (2000-2006) % 45era igotzen da-eta. Kasu honetan 25 puntutan handitzen da portzentajea. Hauekin batera lurralde autonomikoetan kokatzen diren ikonoak kontatu behar ditugu. Euskal Autonomi Erkidegokoak 0-tik % 30 baino portzentaje handiagora pasatzen da, eta Nafarroako Foru Komunitatekoak 0-tik %15era.

Frantzian kokatutako ikonoak 2. aroan (1975-1991) dira aipagarrien % 13arekin, Saioka proiektuaren eraginaren ondorio. Europar kokatutakoak portzentaje egonkorrean aurkitzen ditugu beti, % 10aren inguruan.


4. grafikoa. Lurraldeen gaineko aipamenen portzentajea frantsesez idatzitako testuliburuetan, aroka



Frantsesezko testuliburuetan Frantzian eta Europan kokatzen dira ikonoak. Frantzian gehien, % 90etik gora, lehen aroan (1876-1975), hurrengoetan % 60ra jaisteko.

Testuliburu hauetan Europak hartzen du indarra aroak pasatu ahala. Lehen aroko (1876-1975) aipamen apaletatik %5aren ingurukoetatik, % 40ra igotzen da hurrengoetan, portzentaje hori gaintuz laugarrenean (2000-2006). Europak garrantzi handia hartzen du Frantziako testuliburuetan Frantziarekin batera. Argi uzten dute Frantzia Europan dagoela, baina bestetik, Frantziak Europan duen garrantzia ere nabarmendu egiten da.


5. grafikoa. Lurraldeen gaineko aipamenen portzentajea gaztelaniaz idatzitako testuliburuetan, aroka



Gaztelaniaz idatzitako testuliburuetan, ordea, Europako ikonoak ez dira asko, % 10 inguru. 5. grafiko honetan Espainian kokatutako ikonoak dira nabarmen-tzen direnak. Lehen aroan (1876-1975) % 80tik gora zeuden Espainian kokatu-ta. Kopuru hau Alvarez Entziklopediaren eraginaren ondorioz da, zati batean. Hurrengo aroetan, Espainiako errealitate autonomikoa islatzen da. 2. aroan (1975-1991) lantzen dira autonomietako eta estatuko ikonoak modu orekatue-nean, % 20 eta %25 bitartean hiru kasuetan. Laugarren aroan (2000-2006) aldiz, berriz ematen zaie indarra estatuan kokatutako ikonoei, honako portzenta-jeak eginez: autonomietako ikonoak % 25aren inguruan kokatzen diren bitarte-an, estatuan kokatutakoak % 50era pasatzen dira. Espainian kokatutako ikono-ak gero eta gehiago dira, testuliburuak gero eta eredu zentralistagoa erakutsiz.


Euskal Herria aztergunez hartuta horra hor aurkitzen ditugun datuak:

6. grafikoa. Euskal Herriko ikonoen portzentajea, aroka



Euskal Herrian kokatutako ikonorik gehien, % 42, bigarren (1975-1991) eta hirugarren aroetan (1992-2000) ditugu. Laugarren aroan nabarmen jaisten da portzenta-jea, %12ra, hain zuzen. Beste grafikoetan adierazten den moduan eredu auto-nomikoak hartzen dio aurrea Euskal herriko lurralde historiko-kulturalari. Esandakoa berresteko, euskal lurraldeen aipamenen portzentajea azterzea baino ez dugu.


7. grafikoa. Euskal Herriko lurraldeei buruzko batezbesteko aipamenak ehunekotan



7. grafikoan batezbesteko datuak badira ere, ikonorik gehien Bizkaian kokaturik aurkitzen dugu % 27arekin. Hurrenez hurren, Gipuzkoan % 25arekin eta segidan, Araban % 22arekin. Hiru herrialdeek osatzen duten Euskal Autonomi Erkidegoaren irudi dira datuak eta, askotan, Euskal Herria deitzen zaio autonomia honi, Euskararen lurralde zabala ordezkaturik. Gero Nafarroa daukagu, % 18arekin eta, azkenik, Iparraldeko lurraldeetako ikonoak ditugu, oso urri, % 4aren eta % 2aren tartean.

Euskal Herriko lurraldeak ez dira modu orekatuan lantzen testuliburuetan, askoz nabarmenagoak dira Hegoaldeko lurraldeetako ikonoak Iparraldekoak baino. Ezin daiteke onartu haurraren errealitate hurbileko ingurune soziokulturalaren argazkia hain desorekatua izatea. Nekez eraikiko du haurrak bere identitate euskalduna, unibertso honen erreferentzia osoa eta orekatua ez badu. Ondorengo grafikoan modu argiagoan aurkitzen dugu esandakoa.

8. grafikoa. Euskal Herriko lurraldeen aipamenen portzentajea aztertutako ikonoekiko, aroka eta ehunekotan



Aurreko lerroetan berrestera datoz 8. grafikoan adierazten diren datuak. Aroka aztertuz, gero eta protzentaje handiagoetan hautatzen dira ikonoak –paisaiak, monumentoak, mapak eta abar–, mendebaldeko hiru lurraldeetan, gero eta autonomikoago bihurtuz testuliburuaren ingurunearen testuingurua, hau da, oinarritzko mezua.

Nafarroan laugarren aroan (2000-2006) nabarmentzen den hazkundea Foru Komunitate modura landutako ereduari erantzuten dio. Are gehiago, Nafarroarako egin diren testuliburuetan ez da Euskal Herria aipatzen, ez eta Euskal Autonomi Erkidegoa, Espainiako Autonomien artean ez baldin bada, bederen.

Iparraldeko lurraldeak ez dira ia agertzen, bakarrik Euskal Herria bere osotasunean lantzen duten testuliburuetan, eta hauetan aipatu baino ez dira egiten.

7. EUSKAL HERRIAREN HISTORIA XX. ETA XXI. MENDEETAKO TESTULIBURUETAN


Aurrerapen zientifiko-teknikoak iraultza handia ekarri du zenbait jakintza arloetan. Euretarikeo bat historiarena da. XX. Mendean arlo historikoen ezagutza sakonetik aldatu da, batez ere Historiaurrearen eta Antzinatearen gainean daukagun ezagutza, indusketa arkeologiko, paleontologiko, antropologiko eta beste hainbat zientzien garapenari eta laguntzari esker.

Datu historikoak modu desberdinetan islatzen dira testuliburuetan. Lan honetan hiru multzotan banatu ditugu. Batetik, aro historikoak adierazten dituzten ikonoak neurtu eta bildu ditugu. Bestetik, kronogramak, denbora eta gertaera historikoen uztarketa egiten duten eskemak zenbat diren eta zein testuingurutan lantzen diren aztertu dugu. Azkenik, ezaugarri historikoak lantzen dituzten ikonoak eta hauen testuingurua bildu ditugu.

7.1. Aro historikoak eta euren testuingurua XX. eta XXI. mendeetako testuliburuetan

Aro historikoek historia modu linealean eta kronologikoan oinarritutako eredu bateratuaren arabera antolatzen dute. Bost arotan banatzen dira. Oro har hartuta, aro historikoen artean gehien lantzen direnak gugandik denboran urrunen daudenak dira, laugarren aroko curriculumean Historiaurreari, Antzinateari eta erdi aroari ematen baitzaie garrantzi handiagoa, beste biak, modernoa eta garaikidea, hurrengo urterako uzten direlarik. Historiaren ikuspegi osoa ematen bada ere, indarra gugandik urrunen dauden horietan jartzen da. Aipagarri da haurraren jabetze denporala garatzen hasten dela eta logikoagoa izango litzatekeela gugandik hurbilen dauden gertaera historikoen lanketa, apurka-apurka atzerantz joz. Baina ikuspegi linealak eta progresiboak markatzen du curriculuma hasieratik gaur egunera arte. Hona hemen, bada, zein portzentajetan lantzen diren:


9. grafikoa. Aro historikoetako ikonoen batezbestekoa XX. eta XXI. mendeetako testuliburuetan



9. grafikoan ikus dezakegunez Erdi Aroa da landuena %33arekin, gero Antzinatea % 21arekin eta, ondoren, Historiaurrea % 18arekin. Gutxien lantzen direnak, orde, gugandik hurbilen daudenak dira, Aro Garaikidea % 13arekin eta, ostean, Aro Modernoa % 15arekin. Kontuan hartu behar da azken aroan (2000-2006) Historiaurreari, Antzinateari eta Erdi Aroari ematen zaiela garrantzi handiagoa.

Aro historikoen batezbesteko ikono kopurua ezagutu ondoren, zein testuingurutan lantzen diren jakitea interesgarria egiten zaigu.

10. grafikoa. Aro historikoen testuinguruak testuliburuetan



10. grafikoak argi uzten du aro guztietako historiaren testuinguru estatala dela eta Esatuarekin lotutako historia irakasten dela, oro har. Urrunen dugun aroan, Historiaurrea zehaztugabeko testuinguruan lantzen da kasurik gehienetan eta, zehazten denean, estatuarekin lotzen bada ere. Beste aro guztiak, gugandik hurbilago daudenak, zehatzagoak dira eta Estatuaren historia zehazten dute. Grafikoak erakusten duenez badira testuinguru soziokulturean, juridikoan eta erdaldunean, kanpokoan testuinguratzen diren ikonoak, baina portzentajeak oso txikiak dira % 10tik beherakoak.


Aroen artean zehatzena gugandik hurbilen dagoena da, Aro Garaikidea eta ia % 75ean Estatuarekin loturik aurkitzen da. Gero Aro Modernoak jarraitzen dio % 50aren inguruan, Erdi Aroa % 50arekin, eta ondoren, % 30arekin, eta Historiaurrea % 20arekin zehazten dira. Denak testuinguru estatalean.

7.2. Kronogramen testuingurua XX. eta XXI. mendeetako testuliburuetan

Kronogramak, berez, eskemak dira, denboraren ildo kronologikoa antolatzen duten eskemak. Frantziako testuliburuetan landu izan dira gehien, bigarren arotik (1975-1991) hasita; gero eta erabiliagoak dira. Hego Euskal Herriko testuliburuetan azken hamarkadetan hazi da erabilera. Kronogramak denboraren antolaketa ematen duen heinean, historiaren ibilbidea markatzen du eta gertaera garrantzitsuak markatzen ditu. Hauek hautatuak dira, ezagutza ofizialetik hautatuak eta historiaren ildo guztiz markatzen dute, modu linealean.

Testuliburuetan erabiltzen diren kronogramen testuinguruak aztertu ditugu.

11. grafikoa. Kronogramen testuinguruen batezbestekoa hiru hizkuntzetako testuliburuetan




11. grafikoa kronogramen testuingurua edo zehaztugabekoa edo estatala da. Euskarazko testuliburuaren artean % 5 inguru aurkitzen dugu testuinguru soziokulturalarean antolatua, beste % 10 bat beste herrialde, tako testuinguruekin loturik, eta gehienak zehaztugabeak dira % 50ean. Beste guztiak, % 37 inguru testuinguru estatalarekin loturik aurkitzen ditugu. Oso gutxi dira ingurune soziokulturalarekin lotutakoak.

Frantsesez dauden kronogramak % 40an daude zehaztugabeko testuinguruaren eta beste % 50 testuinguru estatalarekin aurkitzen ditugu. Oro har, kronogramen testuingururik erabilienak estatalak dira, historia estatalarekin loturik dagoelako, haren zutabe baita.

7.3. Ikono historikoen testuinguruak testuliburuetan

Gai historikoak garatzeko eta argitzeko erabiltzen diren ikonoak historikotzat hartu ditugu. Hauen artean argazkiak, erretratoak, eszenak, gertaerak, monumentoak, eraikin historikoak, mapak kontuan hartu ditugu.


12. grafikoa. Ikono historikoen sailkapena aro historikoen arabera, ehunekotan, aroka



12. grafikoan aro bakoitza ilustratzeko erabili izan den ikono kopurua aztertu dugu. Orain mende bat gutxien ezagutzen ziren aroak, Historiaurrea eta, dira ikonoen portzentajeetan gehien hazi direnak. Historiaurrea da lehen aroan (1876-1975) gutxien lantzen zen aroa % 3aren bueltan. Ondorengo hiru aroetan kopurua nabarmen hazi da eta batezbeste % 18aren inguruko portzentajeetan kokatzen da. n ere antzera gertatzen da eta lehen aroko % 12tik % 22 aldera hazi da. Hazkunde honen oinarrian garai hauen gaineko ikerketa ugari dago. Beti eman zaio garrantzia erromatarren inperioari eta gaur egun areagotu egin da. Erdi Aroa gaur eguneko lurraldeen oinarrian dago, beharbada horregaitik izango da ikonorik gehien duena, lehen aroan ia % 40tik gaur eguneko % 33ra jaitsi bada ere, baina grafikoan ikus daitekeenez, erabilera orekatua du lau aroetan zehar eta gehien lantzen dena da, protzentajerik altuenekin. Aro Modernoak garrantzia galdu du Aro Garaikidearekin batera. Ikono gutxiago dute 5. mailako testuliburuetan, baina azken aldiko 6. mailako testuliburuetan modu zehatzago eta bakar-tuagoan lantzen dira.

Hurrengo grafikoan testuliburuaren hizkuntzaren arabera aztertuko dugu ikono historikoen banaketa.

13. grafikoa. Ikono historikoen portzentajea hizkuntzen arabera, ehunekotan, aroa




Euskarazko testuliburuetan oso desberdintasun handiak daude lehen eta laugarren aroetako testuliburuaren artean. Lehen aroan (1876-1975) oso ikono historiko gutxi zegoen euskaraz idatzitako testuliburuetan. Bigarrenean (1975-1991) % 48rainoko igoera, berezko hazkundera badago ere, Saioka proiektuaren ondorioz da, zati handi batean. Hirugarrenean (1992-2000) jaitsi egiten da % 34ra, eta laugarren aroko (2000-2006) testuliburuak gaztelaniazkoak bezalakoak dira % 46ko portzentajearekin. Beste ikerketa batzuetatik ondorioztutako datuen arabera, gero eta antzerakoagoak dira euskarazko eta gaztelaniazko testuliburuak.

Frantsesez idatzitakoaren artean gero eta ikono historiko gutxiago aurkitzen dugu: lehen aroko (1876-1975) % 52tik laugarren aroko (2000-2006) % 7 jasiten da portzentajea.

Azkenik, gaztelaniaz idatzitako testuliburuaren artean ikono historikoen kopuruak aldaketak izan ditu. Lehen aroan (1876-1975) ikono asko zegoen, % 40aren inguruan. Bigarren aroan, Transizio garaian, jaitsi egiten da portzentajea % 18ra, hirugarrenean nabarmen hazten da, % 51ra helduz, berriz % 46ra.

Orain arte ikusi dugunez, hainbat ikono historiko erabiltzen dugu testuliburuetan, baina mezuaren garrantzia ikonoak testuinguruarekin duen harremanean datza. Ikono berak testuinguru aldaturik gero, kontrako esanahia izan dezake. Goazen aztertzerara, bada, ikono historikoen testuinguruaren izaera hizkuntza ezberdinetako testuliburuetan.

14. grafikoa. Ikono historikoen testuinguruak euskarazko testuliburuetan



Euskarazko testuliburuaren ikonoen testuinguruak anitzak dira, 14. grafikoa adierazten denaren arabera. Ingurune soziokulturalarekin lotutako ikonoen kopuruak behera egin du etengabe lehen aroko (1876-1975) % 75eko portzentajetik, laugarren aroko (2000-2006) % 4,86ra. ia desagertu egin da.

Bere ordez testuinguru juridikoa edo autonomikoa hazi da, bigarren aroko % 4tik laugarren aroko % 17 eta erdira, eta testuinguru estala ere, etengabe hazi dena bestalde, lehen aroko 0-tik laugarren aroko % 36ra.

Testuinguru nahasia, Euskal Herriko testuinguru eta autonomikoa nahastean lantzen den kasuetan, bigarren (1975-1991) eta hirugarren (1992-2000) aroetan garatzen da, batez ere. Bigarrean erabiltzen da lehenengoz % 7,42an eta hirugarrenean % 12raino hazten da. Azken aroko joeretan desagertzera doala dirudi.


Kanpoko herrialdeetan kokatutako ikonoak ez dira asko, oro har. Euskaraz idatzitako testuliburuaren kasuan aparteko portzentajea agertzen da bigarren aroan (1975-1991) % 35,64arekin. Saioka testuliburuak lantzen duenaren ondorio

da. Hirugarrenean (1992-2000) % 3,81arekin eta laugarrenean (2000-2006) % 8,55arekin portzentajea askoz txikiagoa da.

Ikono askok mezu historikoa bideratzen baldin badu ere, askotan testuinguru gabe agertzen da. Lehen (1876-1975) eta bigarren (1975-1991) aroetan % 25etik abiatzen da. Hirugarren aroa (1992-2000) da ikonorik gehien duena, % 51, zehaztugabeko testuinguruan. Laugarren aroan (2000-2006) % 31ra jais-tean testuinguru zehatzak irabazten du, estatalak eta autonomikoak bereziki igotzen baitira.


Ondorio bezala esan genezake euskaraz ikasteak ez duela esan nahi edukia testuinguru soziokulturean kokatzen denik, hasierako testuliburuetan zen bezala, oraingoetan gaztelaniazkoen itzulpen hutsa egiten baita askotan.

15. grafikoa. Ikono historikoen testuinguruak frantsesezko testuliburuetan



Frantsesez idatzitako testuliburuetan testuinguruaren aniztasuna galdu egiten da. Euskal Herririk ez da ez eta testuinguru soziokulturalik ere. Hauetan ikono historikorik gehienak Frantziako estatuarekin loturik aurkitzen ditugu. Lehen aroko (1876-1975) % 80tik abiatu eta laugarren aroko % 75aren tartean kokatzen dira gehienak. Hirugarren aroko (1992-2000) testuliburuetan ikono historikoen testuingurua zehaztugabekoagoa egiten da ia % 40koa, zehaztasunean galduz, baina laugarren aroan (2000-2006) berriz zehazten da. Ikono gutxi batzuk kanpoko herrietako testuinguruekin lotzen dira.

16. grafikoa. Ikono historikoen testuinguruak gaztelaniazko testuliburuetan



16. grafikoa gaztelaniaz idatzitako testuliburuetakoko testuinguruaz aztertzen da. Kasu honetan testuinguru soziokulturalak oso portzentaje txikiak agertzen ditu, bigarren arokoa salbu. Saiokaren eraginez portzentajea % 22raino hazten da.

Bigarren aroan (1975-1991) hasten da lehenengoz erabiltzen testuinguru juridikoa % 8arekin, eta hirugarren (1992-2000) eta laugarren (2000-2006) aroetan hazten da % 17raino helduz.


Testuinguru nahasia ia ez da erabiltzen, hirugarren aroan salbu, % 7 eta laugarren aroan desagertzerako bidea hartzen du % 1,69ra jaitsiz.

Testuinguru estatala da ikono historikoen testuingururik erabiliena. Lehen aroan, Alvarez Entziklopediaren eraginez, portzentajea oso handia da % 95ekoa. Bigarren aroan (1975-1991) % 32koa da, Hirugarrenean (1992-2000) % 46ra heltzen da testuinguru estatalarekin lotutako ikono historikoen portzentajea.

Testuinguruarekin lotu gabeko ikonoen portzentajea bigarren aroan (1975-1991), % 44ra iristen da, eta hirugarren aroan zehatzak baino kopuru handiagoa hartzen du. Laugarren aroan (2000-2006) joera zehaztera doa, zehatugabeko testuinguru % 22ra jaitsiz.

Hurrengo grafikoa ikono historikoen testuinguruaren batezbestekoa lantzen da, aztertutako epe osoaren ezaugarriak adierazteko.

17. grafikoa. Ikono historikoen testuinguruak XX. eta XXI.mendeko testuliburuetan



17.grafikoan testuinguruaren garapena aztertzen dugu lau aroetan zehar. Lehen aroan (1876-1975) oso ikono gutxi lotzen da testuinguru soziokulturalarekin, ikonoen % 10era ez da iristen. Ikonorik gehienak, % 80, testuinguru estatalarekin lotzen dira eta % 10aren inguru zehaztugabeko testuinguruaren aurkitzen ditugu.

Bigarren aroan (1975-1991) testuinguru soziokulturala hazi egiten da, % 15era hurbilduz, baina nagusitasuna testuinguru estatalak mantentzen du % 40arekin.

Hirugarren aroan (1992-2000) testuinguru soziokulturala jaitsi egiten da, juridikoaren eta nahasiaren mesedetan. Testuinguru estatalaren portzentajea jaitsi egiten da % 25aren ingurura zehaztugabekoaren mesedetan, azken hau % 50era helduz.

Laugarren aroan (2000-2006) testuinguru soziokulturala ia desagertu egiten da, juridikoaren, % 18arekin, eta estatalaren, % 45arekin, mesedetan. Zehaztasuna irabaztean, zehaztugabeko testuinguru % 30era jaisten da.

8. ONDORIOAK

Euskal Herria, gai modura hartuta, oso modu ezberdinetan landu da XX. eta XXI. mendeetako testuliburuetan. Lurralde modura, lurraldeetako ikono kopurua aztertuta, batezbestean % 13 dagokio Euskal Herriko lurraldeari aztertutako lagin-ean. Landuen 1975etik 2000 urtera arte doazen urteetan izan da % 40an, hain zuzen. Azken sei urteetan 2000tik 2006ra bitartean joera jaistera da, ordea, % 14ra jaitsi baita. Euskal Herriko ikonoak hartuz gero lagin bezala –aipatutako % 13a, hain zuzen–, portzentajeek aro bakoitzean dagoen joera islatzen dute: 1975tik 2000ra arte egiten diren testuliburuetan % 42an lantzen da eta 2000-2006 bitartean % 12ra jaisten da.

Euskal Herriko ikono gehiengoak Bizkaikoa da; ondoren Gipuzkoakoak eta Arabako ikonoak agertzen dira; gero Nafarroakoak. Iparraldeko ikonorik ia ez dago. Iparraldeko lurraldeak ez dira ia agertzen; Euskal Herria bere osotasunean lantzen duten testuliburuetan bakarrik eta hauetan aipatu baino ez dira egiten. Datuek ematen diguten argazkia erabat autonomikoa da. Euskal Herriko lurraldeak ez dira modu orekatuan lantzen testuliburuetan; askoz nabarmenagoak dira Hegoaldeko lurraldeetako ikonoak Iparraldekoak baino.

Nafarroan laugarren aroan (2000-2006) nabarmentzen den hazkundera Foru Komunitate modura landutako ereduari erantzuten dio. Are gehiago, Nafarroarako egin diren testuliburuetan ez da Euskal Herria aipatzen, ez eta Euskal Autonomi Erkidegoa, Espainiako Autonomien artean ez bada, bederen.

Testuliburuak hizkuntzaka aztertuz gero, Euskal Herria euskarazko testuliburuetan gainbehera etorri da; lehen aroan ia % 70ean lantzen zena, laugarren aroan ez da % 10era heltzen. Euskaraz idatzitako testuliburuetan Euskal Herriko testuinguru soziokulturala desagertuz joan da aroz aro XX. mendean zehar eta joera hau XXI. mendean areagotu egin da. Gaur egun testuingurua soziokulturala baino gehiago politikoa da, Estatu hegemonikoren eredutik edaten baitu. Frantsesez idatzitako testuliburuetan, bestalde, ez dago Euskal Herriko eta gaztelaniazkoetan bigarren (1975-1992) eta hirugarren (1992-2000) aroetan % 20ra heltzen ez bazen ere, laugarrenean (2000-2006) ez da % 5era ere heltzen.

Euskal Herria herri historiko bezala aztertuz gero, datuok errealitate gordina adierazten dute. Testuliburuetan lantzen diren aro historikoen artean Erdi Aroa da landuena % 33an, gero Antzinatea % 21ean eta, ondoren, Historiaurrea % 18an. Gutxien lantzen direnak, ordea, gugandik hurbilen daudenak dira, Aro Garaikidea % 13an eta, ostean, Aro Modernoa % 15an. Kontuan hartu behar da azken aroan (2000-2006) Historiaurreari, Antzinateari eta Erdi Aroari ematen zaiela garrantzi handiagoa, hurrengo mailan lantzen direlako sakonago Aro Moderno eta Garaikideak. Aroei dagozkien testuinguruak bi dira nagusiki: zehaztugabea eta estatala. Zehaztugabeakoa Historiaurrean den bitartean, zehatzena Aro Garaikidea da, ia % 80an estatala.

Historiarekin oso loturik lantzen da kronograma edo historiaren lerro kronologikoa. Honen erabilera gero eta handiagoa da, baina testuingurua, aurreko kasuan bezala, edo zehaztugabea da edo estatala. Azterketa hizkuntzaka bereiztuz gero, euskaraz idatzitako testuliburuetan kronograma gehiago dago zehaztugabeko testuinguruan kokatuta eta gaztelaniazkoetan zein frantsesez idatzitakoetan testuinguru estatala da nagusi. Oro har, kronogramak estatuaren historia irakasteko erabiltzen dira, historia estatuarekin loturik dagoelako, haren zutabe baita.

Euskarazko testuliburuetakoko ikono historikoen kopuruak gora behera handiak izan baditu, XX. mendean zehar, gaur egun gaztelaniazkoen oso antzerakoak direla esan genezake, ia kalkoa. Euskarazko testuliburuetakoko ikonoen testuinguru so eginez, argi gelditu da testuinguru soziokulturala gainbehera etorri dela, lehen aroko (1876-1975) % 75etik laugarren aroko (2000-2006) % 4,86ra

jaitsi baita. Soziokulturalaren ordez, testuinguru juridikoa %17,61arekin eta estatala % 36arekin hazi dira. Euskaraz ikasteak ez du bermatzen edukia testuinguru soziokulturalan lantzen denik, lehen aroko (1876-1975) testuliburuetan zen bezala, oraingoetan gaztelaniazkoen itzulpen hutsa egiten baita askotan.

Lan honen hasieran aipatutako azterketa gogoan hartuta, gaur egun Euskal Herriko ikasleek testuliburu bidez ikasten duten errealitatearen ereduak ez du zerikusi handirik haurraren errealitate hurbileko ingurune soziokulturalarekin. Ez gaitzezen engaina, testuliburu euskaraz egoteak ez baitu bermatzen edukiaren testuinguratzeko soziokulturala.

Ikasten duten lurralde erreferentzia politikoa da, ez dator bat Euskal Herrikoarekin. Ikasten duten historiaren ereduak, bestalde, lineala da, mendebaldeko eredu bateratuaren arabera. Oro har, aro historikoen artean gehien lantzen direnak gugandik denboran urrunen daudenak dira eta, historiaren ikuspegi osoa ematen bada ere, indarra gugandik urrunen dauden horietan jartzen da. Umea pentsamendu zehatzetik abstraktora pasatzen den adinean, batez ere jabetze espazial eta denporaletan garatzen hasten denean, logikoagoa da historiaren lanketan gugandik hurbilen dauden gertaeretatik hasia; eta edukiaren testuingurutzeko, haurraren hurbileko testuingurutik abiatu beharra dago, testuliburuetan egiten den kontrakoa, hain zuzen.

Hain argazki desorekatuaren ondorioz, oso nekeza da haurrarentzat testuliburuetan ikasten dituen edukien bidez bere identitate euskalduna eraikitzea, unibertsu honen erreferentzia osoa eta orekatua ez baitaio eskaintzen. Are gehiago, gure eskoletako ikasle euskaldunak euren euskal identitate kultural eta intelektualean desjabetuak dira, desjabetze horren parean kultura hegemonikoaren balioetan heziak diren bitartean. Etorkizunean euskaldun izaten segitu nahi badugu, gure haurrek Euskal Herria euskararen herria dela ikasi behar dute, Balendin Enbeitak, "Urretxindorrek" Bilboko Arenalean duen bustoaren oinean agertzen den bertsoan adierazten duena eurenganatu:

Hizkuntza dogu herri batentzat

bateoko oinarria.

Hizkuntza dogu herri bateko

nortasun ezaugarria.

Euskalherriak Euskera dauka

ez dakigu noiz jarria

eta Euskerak adierazten dau

hau dala Euskalherria

BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, Joseba. "A. Oihenart eta bere garaia. Gizarte-arazoetan bitartekari eta euskal politikagintzan aintzindari intelektuala". In: *Jakin*, 74, 1993; 50 or.
- APALATEGI, J. *La idea de nación en los niños vascos. Adquisición y desarrollo del concepto de nación en la infancia. El sistema identitario*. Balluerka, N.; Isasi, X. (colab.), 1º arg. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2001.
- APPLE, M. W. *Ideología y currículo*. Madrid: Akal, 1986.
- *El conocimiento oficial: la educación democrática en una era conservadora*. Barcelona: Paidós, 1996.
- *Maestros y textos: una economía política de las relaciones de clase y de sexo en educación*. Barcelona: Paidós M.E.C. 1989.
- APPLE, M.; WEIS, L.: "Una visión relacional de la Educación: la estratificación de la cultura y la gente en la sociología del conocimiento escolar". In: APPLE, M.W.: *Teoría Crítica y Educación*, Miño y Dávila ed. Madrid: Buenos Aires, 2001, 144. or.
- AZURMENDI, J. "Esencia y esencialismo: análisis de un concepto". In: PALACIOS, X. (de.): *Ética y nacionalismo*. Vitoria: UPV, 1992, 163-221 or.
- BABBIN, N. *Pour l'école élémentaire. Programmes et pratiques pédagogiques*. Paris: Hachette Education, 1996.
- BERNSTEIN, B. "Clasificación y enmarcamiento del conocimiento educativo". In: *Revista Colombiana de Educación*, 15, 1985; 47-75 or.
- "Conocimiento oficial e identidades pedagógicas". In: GOIKOETXEA PIÉROLA, J.; GARCÍA PEÑA, J. (Coord.) *Ensayos de Pedagogía Crítica*. Madrid: Ed. Popular, 1997; 11-28 or.
- BILBAO BILBAO, B. *Kultura Erreferenteak Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumean Euskal Herriko eskoletan*. Bilbo: EHU, Doktorego Tesia, 2002.
- BILBAO BILBAO, B.; PÉREZ URRAZA, K.; EZKURDIA ARTEAGA, G. "Mendebalde testuliburuetan". In: ASKOREN ARTEAN: *Euskalkiak eta Hezkuntza, Mendebalde Kultur Alkartea*. Bilbo: 2001; 179-200 or.
- *Euskal Curriculuma ala Euskal Dimentsioa Curriculumean?*, Hitzaurrea: Paulo Iztueta. Donostia: Utriusque Vasconiae; 2004.
- "Curriculumeko eduki soziokulturalak, 1990-2006". In Amurrio, M; Larrinaga, A.: *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai: hurbilketa soziologikoa*. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2006.
- INTXAUSTI, Joseba. "Historia, Nación y Nacionalismo. Conversaciones con el historiador Pierre Vilar". In: *Euskal Herria II, Errealitate eta Egitasmoa*, Lankide Aurrezkia, 1985; 538. or.
- CASTELLS, M. *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. 2 El poder de la Identidad*. Madrid: Alianza Editorial, 2000.
- CHOPPIN, A. *Les manuels scolaires, Histoire et actualité*. Paris: Hachette, 2000.
- "Pasado y presente de los textos escolares". In: Ruiz Berrio, J. *La cultura escolar de Europa*. Madrid: Biblioteca Nueva, 1992.
- DELVAL, J. "El conocimiento de los niños de su propio país", *Cuadernos de Pedagogía*, 75, 1981; 33-36 or.

- Ezkurdia Arteaga, Gurutze: *Euskal Herria gaiaren garapena XX. eta XXI. mendeetako testuliburuetan*
- EGAÑA, I. *Diccionario histórico-político de Euskal Herria*, 2t., H-Z, Txalaparta, 1996; 720. or.
- ELHUYAR HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA, 565. or.
- ESTORNÉS LASA, B. *Diccionario Historiko-Geografiko de Euskal Herria*, Auñamendi, 192. or.
- EUSKO JAURLARITZA. *Euskal Autonomi Elkarteko Oinarrizko Curriculum-Diseinua. Lehen Hezkuntza. Inguruaren Ezaguera. Matematika. Gorputz Hezkuntza. Arte Hezkuntza. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1992.*
- EZKURDIA, Gurutze. *Identitatea eta Ingurunea Curriculumean*. Bilbo: Doktorego tesia, EHU, 2004.
- GIMENO, J. *El curriculum, una reflexión sobre la práctica*. Madrid: Morata, 1998.
- HERNÁNDEZ, F. "Estudios culturales y lo emergente en educación". In: *Cuadernos de Pedagogía*, 285, 1999; 20-44. or.
- HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA, 3000.
- IZTUETA, P. *Intelligentsia kimatuaren orbelak*. Irun: Kutxa Fundazioa, 1996.
- LEIÇARRAGA, I. "Gucizco Andre Noble Ioanna Albrete Naffarroaco Reguina Bearnoco Andre guehién Ec, denari, bere cerbitzari gucizco chipiac eta gucizco obedientac, ioannes Leçarraga Berascoizcoac, Iesus Christen gratiá eta baquea desiratzen", In *Baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und ABC)* im genauen Abdruck herausgegeben von Th. Linschmann und H. Schuchardt. Mit Unterstützung der Kais. Akademie der Wissenschaften zu Wien. Strassburg: Verlag von K. J. Trübner, 1900.
- MACEDO, D. "Revisión de la Pedagogía Crítica. Entrevista a Paulo Freire". In: Freire, P: *La naturaleza política de la educación*. Barcelona: Paidós, 1990; 172-195. or.
- PÉREZ URRAZA, Karmele. *Zientzia, Teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan*. Bilbo: Doktorego Tesia, EHU, 2003.
- POULANTZAS, N. *Estado, poder y socialismo*, 7. arg. México D.F.: Siglo XXI, 1979; 115. or.
- RICHARDEAU, F. *Concepción y producción de manuales escolares. Guía práctica*. Bogotá-Paris: Unesco, 1981.
- ROSA, A.; BELLELLI, G.; BAKHURST, D. (Eds.) *Memoria colectiva e identidad nacional*. Madrid: Biblioteca Nueva, 2000; 42. or.
- SALABERRI MUÑOIA, P. *Leizarraga zaharra, Leizarraga gaurkoa. Hautatu orriak*. MDLXXI, prestatzailea Patxi Salaberri Muñoia. Bilbo: Erroteta, 2007; 13. or.
- TORRES SANTOMÉ, J. *El currículum oculto*. MADRID: Morata, Bilbo. 1992.
- VILAR, Pierre. *Pensar históricamente. Reflexiones y recuerdos*. Barcelona: Crítica, 1997; 40. or.